

OSTEGUNEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2026ko URTARRILAREN 08a. 08:30.

OSTEGUNA (2026/01/08)

Zerua partez hodeitsu egongo da erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin eta egunaren amaieran hodeitza handituz joango da zerua hodeitsu edo oso hodeitsu gelditu arte. Gauean euri txiki-ertaina egin dezake, bereziki egunaren azken orduetan eta Kantauri isurialdearen mendebaldean. Hego-mendebaldeko haizea ahul-bizi ibiliko da eta arratsaldean indartu egingo da, bolada gogorrekin eta oso gogorrekin, bereziki mendebaldeko mendi inguruetan. Temperatura maximoak nahikoa edo nabarmen igoko dira, bereziki barnealdean.

Temperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	14
Bilbao	15
Gasteiz	9
Arrasate	12

OSTIRALA (2026/01/09)

Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da. Prezipitazio txiki-ertaina egingo du, egunaren bigarren partean ugariagoak eta orokorragoak izango dira eta Kantauri isurialdean baliteke iraunkorrak izatea. Baliteke arratsaldean eta gauean Kantauri isurialdean trumoi-ekaitzak jotzea. Elur-kota jaisten joango da, eguerdi aldera 1000 m inguruan egon daiteke eta 700-800 m inguruan arratsaldean eta gauean. Mendebaleko haize bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogorrekin, bereziki kostaldean eta egunaren erdiko orduetan; egunaren bigarren zatian mendebal/ipar-mendebaldekoa nagusituko da. Temperatura minimoetan aldaketarik ez edo gutxi igoko dira. Temperatura maximoak gutxi jaitsiko dira Kantauri isurialdean eta aldaketarik ez gainontzeko tokietan. Egunaren bigarren partean mendi inguruetan izotz txikia egin dezake.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	8	12
Bilbao	9	13
Gasteiz	3	8
Arrasate	5	10

LARUNBATA (2026/01/10)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Prezipitazio txiki-ertaina egingo du, ugariago Kantauri isurialdean eta egunaren lehen zatian; orduan zenbait tokitan euria ugaria eta iraunkorra izan daiteke. Gauean atertzera egingo du. Elur-kota 700-800 m inguruan egongo da, goizean igo eta egunaren bigarren zatian 1000-1200 m inguruan kokatuko da. Mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta kostaldean oso gogor batzuekin; arratsaldean indarra galduko du. Temperatura minimoetan aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko dira. Temperatura maximoak gutxi edo nahikoa jaitsiko dira, bereziki barnealdean. Mendi inguruetan izotz txikia egin dezake.

IGANDEA (2026/01/11)

Zerua hodeitsu egongo da, tarteka oso hodeitsu. Egunaren lehen zatian baliteke hantemenka euri txikia egitea. Hego-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da. Temperatura minimoetan aldaketarik ez. Temperatura maximoak nahikoa igoko dira, bereziki Kantauri isurialdean.